

Parte-hartzea gizarte garatuetan: Hirugarren Esparruaren argilunak gaur egun

Gorka Moreno

EHUko Soziologia saileko ikerketa-bekaduna

Artikulu honen helburua, gaur egun Hirugarren Esparruaren inguruan sortzen ari diren eztabaidetan sakontzea da. Hirugarren Esparruaren definizioa eta bilakaera historikoa aipatu ondoren, une hauetan antzematen diren arazo nagusienak planteatzen dira. Bi dira nagusiki azpimarratzen diren arriskuak: finantziazioa eta profesionalizazioa. Finantziatioari dagokionez, erakunde finantziatzailearenganako fidelitasuna eta dependentzia askotan gertatzen diren dinamikak dira. Bestetik, azken urteotan, erakunde horietan izan den profesionalizazioak burokratizazioa, ezegonkortasun laborala eta “profesionalen kastak” bultzatu ditu; era berean, borondatezko lanaren logikaren (elkartasuna eta elkarkidetzak) kontra jotzen da horren bitartez. Ondorio nagusi bezala, Hirugarren Esparruaren aukera eta potentzialitateak aipatzen dira, baina beti ere arrisku horiek aintzat harturik.

The aim of this article is to deepen into the discussion about the “Third Sector”. After explaining the definition and historic development of the “Third Sector”, the main problems that are seen at this moment are proposed. The risks are, mainly, two: the financing and the professionalization. Concerning to the financing, the financier creates fidelities and dependencies. The professionalization of this organizations foments the laboral precariousness, the bureaucracy and the emergence of a “professional caste”; at the same time, the professionalization breaks the logic of the voluntary work (solidarity and cooperation). Finally, the possibilities and potentialities of the “Third Sector” are mentioned, but always taking into account the problems and risks that have been pointed previously.

1. Gizarte zibilaren aintzindari historikoak

Gizarte-eragileen parte-hartzeari buruz hitz egiten denean, askotan zaila izaten da mugak zehaztea edota beste alor batzuekin bereiztea. Gizarte zibila izango litzateke aktore horien esparru-jokoa, era berean gizarte zibila Estatu eta Merkatuaren artean kokatzen den *Hirugarren Esparrua* izango litzateke. Gizarte zibilari buruzko ikerketak azken hamarkada hauetan modan jarri badira ere, beste garai batzuetan izandako zenbait kasu ere aipa daitezke.

Erakunde sozial horien parte-hartzea gizartean ez da berria, jadanik Estatu modernoaren sorrera baino lehenago ere azpimarra daitezke zenbait ekintza. Horrela bada, Antzineko Erregimenean aipagarriak dira erlijioa oinarri duten erakunde batzuen lanak, gehienbat pobreziaren ingurukoak.

Estatu modernoaren sorrerarekin eta langile-mugimenduaren hastapenarekin batera, erakunde erlijioso horien ondoan langile-mugimenduak sortutako elkarteak ere ageri dira. Azken horien bitartez, lehenengo aseguru sozialak martxan jartzen dira gaixotasun, istripu edota zahartzaroaren arriskuak ekidin ahal izateko.

Estatu sozialaren sorrera dela eta, erakunde horien indarra asko jeitsiko da. Bismarck izan zen Estatuaren parte-hartzea esparru sozialean bultzatu zuen lehena. Horren bitartez, lehenago gizarte zibilak esleitzen zituen zenbait prestazio sozial Estatuaren esku geldituko dira: Ongizate-Estatuaren lehen urratsak dira horiek.

Ongizate-Estatuaren garaian gizarte zibilaren parte-hartzea ezkutuan gelditzen da. Gizarte-mugimenduen esku gelditzen da enplegua-integrazioa binomiotik at geratzen den esparru baztertua. Era horretan, Europako lurralde askotan, mota horretako elkarteak izango dira politika asistentzialen kudeatzaile nagusienak. Caritas edota Gurutze Gorria bezalako erakundeak horren adibide garbia izango lirateke.

2. Ongizate-Estatuaren krisia: gizarte zibilaren suspertzea

70eko hamarkadatik aurrera Ongizate-Estatuaren krisia gertatzen da. Ideologikoki, ezkerretik zein eskuinetik, asko dira gizarte zibilaren berpizte-dinamika bat defendatzen dutenak. Ongizate-Estatuaren *urrezko garaian* gizarte zibila lokartuta egon da, eta Estatuak bere gain hartu ditu gizarteari legezkiokkeen funtzioak. Baina era berean, azpimarratu behar da Ongizate-Estatua bera dela gizarte zibila suspertzen duena. Estatuak bultzatutako burokratizazio-prozesuaren aurrean zenbait mugimendu sozial ezberdin sortzen dira (Salinas, 1997), auzo-elkarteak edota Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) adibide argiak dira.

Lehenago esan den bezala, gizarte zibilaren aldarrikapena ikuspegi ideologiko ezberdinetatik bultzatzen da, eta beraz, horren esanahia eta helburuak ezberdinak dira jarreraren arabera.

Ikuspegi neoliberalaren arabera, Merkaturia da gizarte zibila zuzendu eta esnarazi behar duena, horrela bada, ekonomia da gizartearen ardatza eta muina; Gray-k esaten duen bezala, neoliberalen iritziz Merkaturian gertatzen den trukea da giza askatasunaren esentzia (Gray, 1998: 36). Estatuak, Merkaturian interferentziak

sorrarazten dituenek, gizarte zibilaren kontra eta indibiduen askatasunen kontra egiten du. Abiapuntu teoriko horretatik pribatizazioak defendatzen dira. Estatuak bere gain dituen alor asko berriro merkantilizatu egiten badira, horrek ondorio onuragarriak sortuko litzuke gizarte zibilean. Hauxe da laburbilduz, neoliberalen analisia eta horri aurre egiteko planteatzen dituzten irtenbideak.

Ezkerraren ikuspegiak erabateko interbentzionismo estatala salatzen du eta gizarte zibilaren parte-hartzea politikaren maila ezberdinetan aldarrikatzen du. Ikuspuntu hori oinarritzat hartuz sortzen dira 60ko eta 70eko hamarkadetan lehenengo mugimendu sozialak (antimilitaristak, ekologistak, feministak...).

Testuinguru horretan, azken hamarkadetan *Hirugarren Esparrua* bezala ezaguna den errealtatea izugarri hazi da, izen horren azpian askotariko elkarte eta erakundeak egonik. Dagoen aniztasuna dela eta, sarritan, zaila izaten da definizio bakarra edota ezaugarri zehatz batzuk ematea, kontzeptu baten baitan esanahi eta norabide asko dituzten enteak biltzen baitira.

Hirugarren Esparrua Estatu eta Merkatuaren artean kokatzen den tarteko eremua izango litzateke. Definizioei dagokienez, asko dira ematen direnak eta horien artean *ezkorrak* diren definizioak gailentzen dira. Horrela bada, Hirugarren Esparrua ez da ez Estatu eta ez Merkaturia, horrelako zehaztasun-erakundeak izugarriko zailtasunak sorrazten ditu sailkapenak egiterakoan; izan ere, errealtate asko eta oso ezberdinak sartzen baitira definizio horien baitan. Azkenean, askotan oso zaila suertatzen da Hirugarren Esparrua ondo bereiztea Estatu eta Merkatuaren artean, bi horien arteko mugak oso zehaztugabeak izaten baitira gehienetan.

Hirugarren Esparrua zenbait esparrutan mugitzen da eta askotan gaiek zerikusirik ez dute haien artean, horren inguruan batzuk dira aipa daitezkeen eremuak (Jerez y Revilla, 1997: 30-31):

1. Elkarrenganako laguntza ahalbidetzeko eredu tradizionalak: kasu honetan pobrezia eta bazterketa sozialean lan egiten duten erakundeak kokatzen dira, erakunde erlijiosoen garrantzia handia da atal honetan.
2. Mugimendu sozialak: erakunde sindikalak, ekologistak, feministak, etab. kokatzen dira eremu honetan.
3. Asoziazionismo zibila: kirol, kultura edota aisialdian, besteak beste, lan egiten duten erakundeak.
4. Azken urte hauetan garrantzi nabaria hartu duten Gobernu Kanpoko Erakundeak.
5. Fundazioak eta ikerketa-guneak: Kasu honetan enpresen eta erakunde hauen arteko lotura handia izaten da.

Sailkapen horretan ikusten denez, *saku berean* oso ezberdinak diren erakundeak ageri dira: orientazio anarkista duen sindikatu batetik enpresa bateko fundazio bateraino tartea irekita gelditzen da. Hirugarren Esparruaren barruan dagoen aniztasuna beti ere kontuan hartu behar da, horrela ez bada, elkarte hauenganako gerturatzea okerra izango da.

Gaiaz gain, lurraldearen arabera ere zenbait ezberdintasun bereiz daitezke, eredu ezberdinak bereiz baitaitezke kokapen geografikoaren arabera (Saras, 1995):

1. Eredu *renanoa*: Erdialdeko Europan nagusitzen den eredu; bertan, erakunde handi eta sendoak ageri dira eta, finantziarioa insituzio publikoetatik lortzen da nagusiki.
2. Eredu eskandinaviarra: antzekotasun handiak ditu aurreko ereduarekin. Kasu honetan Estatuaren kontrola erakunde horietan oso garrantzitsua da.
3. Eredu mediterraneo: boluntarioen sektorea historikoki Eliza Katolikoaren esku izan da, kasu honetan instituzio publikoen eta erakunde ezberdinen arteko lotura ez da aurreko bi ereduetan bezain handia, are gehiago, sarritan harreman gatazkatsuak izaten dira bi horien artean.
4. Eredu estatubatuarra: kasu honetan erakundeen izaera lokala azpimarratzekoa da. Finantziario publikoarekin batera pribatua ere oso inportantea da, instituzio publikoen eta erakundeen arteko harremanak nahiko ahulak dira.

Ezaugarriei dagokienez, Salinas-en sailkapenari jarraituz, bost dira azpimarra daitezkeenak elkarte-mota hauei buruz hitz egiten denean (Salinas, 1997: 122):

1. Erakunde formalak izan behar dute, gutxienezko instituzionalizazioa beharrezkoa da.
2. Izaera pribatuko erakundeak dira; beraz, Estatutik at gelditzen dira.
3. Irabazi ekonomikoak lortzea ezin da izan erakunde haien helburua, merkaturuko logika ez da egokitzen.
4. Barne-antolaketa eta erabakitze-prozesuak erakundearen baitan gertatu behar dira, teorian, beste erakunde batzuen esku-sartzea ez litzateke zilegia izango.
5. Borondatezko erakundeak dira; beraz, kideen artean boluntarioek izan behar dute nagusi.

Ezaugarri horiei erreparatuta, zenbait ezberdintasun antzeman daitezke teorian esaten denaren eta gero errealitatean gertatzen denaren artean. Eta horiek dira, hain zuzen ere, gaur egun eztabaidatzen ari diren alde garrantzitsuenak Hirugarren Esparruari buruz hitz egiten denean.

3. Hirugarren Esparruaren argilunak

Hirugarren Esparruak potentzialitateak eskeintzen ditu; horien artean, merkaturatik at dagoen esparru bat sortzea edota herritarren parte-hartzeak bultzatzen dituen birpolitizazio- eta demokratizazio-dinamikak.

Baina era berean, Hirugarren Esparruak baditu ere azpimarratu behar diren zenbait arrisku. Horien azterketa zorrotza eginez gero, seguru asko, emaitza hobeak lortuko dira Hirugarren Esparruari dagokionez. Aipatzen diren arriskuen artean, nagusiki bi azpimarratuko dira: alde batetik, erakundeen finantziarioari lotuta ageri dena; eta bestetik, profesionalizazioa.

Hirugarren Esparruaren eta finantziazioaren arteko lotura gai korapilatsua da errotik. Elkarteek haien lana eta proiektuak martxan jartzeko, logikoa denez, aurrekontu sendoak behar dituzte; horretarako, normalean, kanpo-finantziazioa behar-beharrezkoa izaten da; izan ere, kuoten bidez edo barne-finantziazioaren bitartez lortzen diren aktiboak orokorrean nahiko urriak izaten baitira. Gaur egun, erakunde gehienetan autofinantziazioa eskasa da eta beste erakunde edo enpresa batzuen laguntza behar izaten dute.

Era horretan, kanpotik datozen diru-kopuruak bi iturri nagusi izaten dira: alde batetik, instituzio publikoen diru laguntzak; eta bestetik, enpresa pribatutik lortzen diren donatiboak. Horren inguruan sortzen den eztabaida erakunde horien benetako autonomia-maila izaten da. Kasu askotan, erakunde finantziatzailearenganako dependentzia oso handia izan daiteke, helburuak eta estrategiak markatzeraino, azkenean erabaki inportanteenak erakundetik at har daitezke.

Finantziazio publikoari dagokionez, nahiko argi gelditzen da lehen aipatu dependentzia. Instituzio publikoetan alderdi politikoak izaten dira nagusi, beraiek erabakitzen dituzte diru-laguntzak emateko irizpideak, horrela izanik, ez da harritzekoa haien inguruko erakundeek mesedezko tratabidea izatea. Horrelako adibideak behin eta berriz azaltzen dira praktikan.

Era berean, finantziazio pribatuari dagokionez, antzerako inertziak agertzen dira. Enpresa edo erakunde pribatu batek diru-laguntza bat ematen badio erakunde bati atzean interes batzuk izango dira, ekonomikoak edota publizitarioak. Kasu horretan, oso aipagarriak dira zenbait enpresek helburu publizitarioak direla eta, zenbait elkarteri eman dizkieten diru-kopuruak, benetako kanpaina publizitarioak eginez. Pepsi-k, adibidez, GKE batzuekin proiektu komunak bultzatu ditu, komunikabide askotan ondo azaldu denez. Publizitate-mota horrek kezka etikoak ere ekartzen ditu eztabaidara: Zilegia al da garapenaren alorrean lan egiten duen erakunde batek multinazional baten diru-laguntza onartzea? Horrelako kasuetarako kode etiko bat edukitzea ez litzateke soberan egongo (Aranguren, 2001), bestela adibide esperpentikoak behin eta berriz gertatuko dira, eta horrek, azkenean, erakundeen kontra bihurtuko da.

Horri lotuta, propagandaren auzia agertzen da; izan ere, gero eta handiagoa da zenbait erakundek bultzatzen dituzten kanpaina publizitarioak (Giner y Sarasa, 1997). Esparru horri gehiegizko garrantzia ematen bazaio, askotan erakundearen benetako helburu eta printzipioak zokoratuta gelditu daitezke. Benetazko *erakunde mediatiko espektakularra* sor daiteke, baina horren atzean eduki sendorik ez badago, lehenago edo beranduago erakunde horrek porrot egingo du. Gaur egun, GKEak *modan* daude (Azua, 1996), baina modan dagoena laster modaz kanpo egon daiteke, eta hori kontuan hartu beharreko arriskua da.

Arazoei dagokionez, profesionalizazioa arrisku handia da dudarik gabe. Arazoen barruan, burokratizazioa edota merkantilizazioaren *zamak* dira kontuan hartu beharreko arriskuak; izan ere, azken urteetan erakunde gehienetan dagoen tendentzia profesionalizazioa da, hain zuzen ere.

Erakunde baten profesionalizazioa oso handia baldin bada, ez da harritzekoa burokratizazioaren arriskua agertzea. *Profesionalen kastak* eskuratzen du erakun-

dearen kontrola eta, askotan, interes pertsonalak eta erakundearenak bateratu egiten dira. Profesionalen hedapen horrek erabat kontrajartzen da borondatezko lanaren logika sortzailearekin, eta, kasu askotan, arazo larriak sortzen ari dira erakundeen barruan; izan ere, zenbait erakundetan pertsonalaren gastuan aurrekontu osoaren %70 joaten da (Jerez y Revilla, 1997: 41), horrelako zifrek argi erakusten dute arazoa zenbaterainokoa den.

Horren inguruan garbi izan behar da, erakunde batek nolabaiteko profesionalizazioa behar duela, handia baldin bada, zeresanik ez. Baina baieztapen horretatik ezin da ondorioztatu erakundearen erabateko profesionalizazioa bultzatu behar denik. Borondatezko lanean oinarritzen diren elkarteen funtsa boluntarioak eta borondatezko lana dira, eta hori zalantzan jartzen bada, dena da zalantzan jartzen, lan profesional eta boluntarioaren arteko orekak eta erlazioak ondo zehaztu beharko lirateke.

Burokratizazio-dinamikei lotuta *txiringitoen* fenomenoak ere agertzen zaigu. Horrela, askotan, kideen aberastea soilik bilatzen duten erakundeak sortzen dira, lan boluntarioa edota garapenerako elkarkidetzak aitzakiatzat erabiliz. Kasu horietan zenbait pertsonaren inserzio laborala da bultzatzen dena, eta elkartasuna edota parte-hartzea hitzak *marketing*-aren esparrura mugatzen dira.

Prozesu horien ondorio nagusia Hirugarren Esparruaren merkantilizazioa da eta horrek izugarritzko hausturak sortzen ditu borondatezko lanaren logika tradizionalarekin.

Profesionaltasuna oinarritzat hartzen duten elkarte gehienek, azkenean, erabateko logika ekonomizista eta arrazionala bereganatzen dute. Horrelakoetan, askotan, oso zaila suertatzen da Hirugarren Esparruko elkarte baten eta enpresa pribatu normal baten arteko aldeak topatzea. Hirugarren Esparrua eremu ekonomiko bezala defendatzen dutenentzat aukera ona da zenbait alor merkatuko logikatik aldentzeko, baina era berean alderantzizko prozesua ere gerta daiteke, alegia, gaur egun merkantilizatuta ez dauden eremuen merkantilizazioa. Eta azken urteetako bilakaerari erreparatzen bazaio, bigarren aukera da nagusitzen ari dena.

Ezegonkortasun laborala, adibidez, arrunta da Hirugarren Esparruan, askotan, *ganga-merkatu* bilakatu da, bertan edozein baldintza laboral zilegi izaten baita: soldata baxuak, lan-ordu amaitezinak, inestabilitatea... Merkatuan mozkinik ematen ez duena Hirugarren Esparrura trasbasatzen da, horrela paper subsidiarioa hartzen du Hirugarren Esparruak (Supiot, 1999). Hau errealitatean gertatzen ari den prozesua da eta etorkizunean kontuan hartu beharrekoa.

Horrekin batera, lehen logika ekonomikotik urruti kokatzen ziren bizitzaren zenbait esparru merkantilizatzen ari dira. Ekonomia bizitzaren zenbait esparruren kolonizazioa (Habermas, 1988) edota *merkadizazioa* (Castel, 1997) bultzatzen ari da. Horren inguruan, André Gorz soziologo frantsesak egindako ekarpenak oso interesgarriak dira: ekonomiatik at dauden ekintzei esanahi ekonomiko bat ematea, ekintza horien krisia sortaraz dezake (Gorz, 1995: 143), eta horixe da, hain zuzen ere, Hirugarren Esparruko elkarte batzuk bultzatzen ari direna. Zenbait ekintza ezin dira merkantilizatu, beraien esanahia galduko bailukete eta borondatezko lana testuinguru horretan kokatzen da.

Borondatezko lanaren muinean elkartasuna eta elkarkidetzak kokatzen dira, balio horiek dira *saria*, eta ez soldata edota diru-kopuru bat. Ekintza asko ezin dira parametro ekonomikoekin ulertu: laguntasuna, maitasuna, edota elkartasuna *ez dira erosten*, ematen dira, eta hori da, hain zuzen ere, *saria*, satisfakzio pertsonala, esaten den bezala *lagunak ez dira erosten*. André Gorz-en zita batean oso argi erakusten da hori: *nik eman egiten dizut trukean deus eskatu gabe; zuk gogo onez onarten duzu eta zerbait eman nahi didazu ere. Gakoa ez da jaso duzunaren baliokidea niri ematea; hori laidogarria izango litzateke eta zuk badakizu* (Gorz, 1995: 215). Hirugarren Esparruaren baitan sartzen diren lan asko afektibitatea eskatzen dute, eta hori ezin da soldata baten bidez erosi, edota formazio egoki bat bultzatuz (Gorz, 1986). Zure seme-alabekin arratsalde bat igarotzeari balio ekonomiko bat ematea, giza arrazionalitatekin urrun eta eromenetik gertu kokatzen den ekintza da, eta horixe da, hain zuzen ere, azken urte hauetan zenbaitetan bultzatzen ari den estrategia.

Logika ekonomikoa sartzen bada, balioen krisia gertatuko da, eta hein batean, Gizaberearen esentziaren krisia ere. Bizitzaren esparruen merkantilizazioaren ordean, helburuak guztiz kontrakoa izan behar du, ahal den eta eremu gehien desmerkantilizatzea, eta hori boluntarioen lana izan daiteke, beti ere elkartasunean eta elkarkidetzan oinarritutako borondatezko lana baldin bada. Helburuak pertsonen askatasuna bermatzea izan behar du eta, horretarako, egokiena da ahal denik eta esparru gehien desmerkantilizatzea, bizitzaren *birmerkantilizazioa* baino *birbitalizazioa* da bultzatu behar dena. Michael Walzer-ek dioen bezala, *merkatuaren logika ondo doakio merkatuari. Baina merkatua hiriko zati bat baino ez da, eta ez hiri osoa* (Walzer, 1993: 120).

4. Hirugarren Esparruaren etorkizuna: potentzialitateak neurrian

Aurreko lerroetan ikusi den bezala, Hirugarren Esparruari buruz hitz egiten denean baieztapen argirik egitea zaila izaten da, onurak eta potentzialitateak dakartza bere baitan, baina arazo eta arrisku dezente ere azaltzen dira. Munduan dagoen aniztasuna dela eta, oso zaila da ondorio argirik azpimarratzea, akaso kasuz kasuko azterketetatik abiatuta, emaitza hobekak lor litezke ikerketa-gai honetan.

Hirugarren Esparruak eta borondatezko lanak baditu bere baitan potentzialitateak. Gizarte zibilaren *berpizkundera* bultza daiteke, beti ere demokratizazioa, elkartasuna eta parte-hartzea sustatu egiten badira. Borondatezko lana esparru horretan kokatzen bada, aukerak egongo dira herritartasun berri bat eraikitzeko, horretarako zenbait gauza azpimarratu behar dira.

Gaur egun, Hirugarren Esparruaren birpolitizazioa behar-beharrezkoa suertatzen da, GKEak ezin dira mugatu ageriko arazora, sintomara; egiturazko arazoiei ere aurre egin behar diete. Estatuaren demokratizazioa bultzatu behar da (Alonso y Jerez, 1997) erakunde horien bitartez, baina beti ere Estatuaren ardurak zein diren garbi izanda. Hirugarren Esparrua ezin da erabili Ongizate-Estatuaren lorpenak suntsitzeko, eduki politiko eta soziala eman behar zaie erakunde horiei. Hurrengo urteetan erakunde horien erronka nagusia hauxe izango da, hain zuzen ere:

haien berdefinizioa gizartean, alegia, hartutako norabidearen araberakoa izango da borondatezko lanaren eta Hirugarren Esparruaren etorkizuna.

Bibliografía

- Alonso, L.E. eta Jerez, A. (1997): "Hacia una politización del tercer sector" in Jerez, A. (Coord.): *¿Trabajo voluntario o participación? Elementos para una sociología del tercer sector*, Ed. Tecnos, Madrid.
- Aranguren, L.A. (2001): "Ética en las organizaciones de voluntariado" in *Documentación Social*, nº 122, enero-marzo, 205-228.
- Azua, P. (1996): "Las ONG, ¿un tercer sector? Mito y realidad" en *Documentación Social*, nº 103, abril-junio, 281-290.
- Castel, R. (1997): *La metamorfosis de la cuestión social: una crónica del salariado*, Ed. Paidós, Buenos Aires.
- Giner, S. eta Sarasa, S. (1997): "Altruismo cívico y política social" en Giner, S. eta Sarasa, S. (arg.): *Buen gobierno y política social*, Ed. Ariel, Barcelona.
- Gorz, A. (1986): *Los caminos del paraíso. Para comprender la crisis y salir por la izquierda*, Laia, Barcelona.
- , (1995): *Metamorfosis del trabajo. Búsqueda del sentido. Crítica de la razón económica*, Sistema, Madrid.
- Gray, J. (1998): *Postrimerías e inicios. Ideas para un cambio de época*, Sequitur, Madrid.
- Habermas, J. (1988): *Ensayos políticos*, Península, Barcelona.
- Jerez, A. eta Revilla, M. (1997): "El tercer sector. Una revisión introductoria a un concepto polémico" en Jerez, A. (Coord.): *¿Trabajo voluntario o participación? Elementos para una sociología del tercer sector*, Tecnos, Madrid.
- Salinas, F. (1997): "El Estado de Bienestar y las organizaciones voluntarias" en JEREZ, A. (Coord.): *¿Trabajo voluntario o participación? Elementos para una sociología del tercer sector*, Tecnos, Madrid.
- Supiot, A. (Coord.) (1999): *Trabajo y empleo. Transformaciones del trabajo y futuro del Derecho del Trabajo en Europa*, Tirant lo blanch, Valencia.
- Walzer, M. (1993): *Las esferas de la justicia. Una defensa del pluralismo y la igualdad*, Fondo de Cultura Económica, México.